

Arazoak? Zalantzak? Deitu iezaguzu

116111

Hurrei eta Nerabeei laguntzeko
telefonoa

Zenk esan



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

ZER DA 116111 ZEUK ESAN?

Euskal Autonomia Erkidegoko Haurrei eta Nerabeei Orientazioa, Aholkularitza edo Informazioa emateko zerbitzua da, **telefonoz** (116111) zein **online** bidez (www.euskadi.eus/zeukesan eta **sare sozialak**). Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du.

ZERTAN DATZA?

Zerbitzua anonimoa eta doakoa da; 116111 telefonora deitzeak ez du fakturan arrastorik uzten. Profesional adituz osatutako talde batek erantzuten die hauren eta nerabeen kontsultei. Haurrek dituzten kezka edo interesatzen zaizkien gaiiei buruzko orientazioa, aholkularitza edo informazioa ematen dute, eta kontsultak ebazteko dagokion zerbitzura bideratzen dituzte. Bestalde, babesgabetasun arriskua dagoela uste bada, zerbitzuak horren berri emango dio babes-sistemari.

NORENTZAT DA 116111 ZEUK ESAN ZERBITZUA?

Euskal Autonomia Erkidegoko **edozein haur edo neraberentzat**,

- ✓ egoera zaila bizitzen ari bada, arazo bati nola aurre egin ez badaki, edo eskubide-hausturaren bat jasaten ari bada.
- ✓ berak dakienean bere lagun bat egoera zaila bizitzen ari dela eta konponbidea emateko horren berri eman nahi badu.

Baita **helduentzat** ere, beren ingurunean haur edo neraberen bat babesik gabe dagoela dakitenean, edo susmatzen dutenean, eta zer egin ez badakite.

ORDUTEGIA

- ✓ Urteko egun guztietan.
- ✓ Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 21:00.
- ✓ Larunbat, igande eta jaiegunetan: 12:00 - 20:00.

ONLINE KONTSULTAK EGITEKO

- ✓ Kontsulten postontzia, *Zeuk Esan* zerbitzuaren web gunean.
- ✓ Facebook eta Twitter sare sozialeko profilak (sarbidea web gunean ere dago).

HORREZ GAIN, ZEUK ESAN ZERBITZUAREN WEB GUNEAN AURKITUKO DUZUNA

- ✓ 2 blog (bata helduentzat eta bestea adingabeentzat).
- ✓ Eduki eta material interesgarriak (balioetan, eskubideetan eta betebeharretan prestakuntza emateko baliabideak, etab.)



116111